




OINARRIZKO BAZKIDEAK

Gure enpresak edukiko dituen oinarrizko bazkideak honako hauek izango dira:



Lehenik, lokala udaletxeak (Amasa-Villabonakoak) utziko digu, hau da, ez dugu alokairurik ordainduko. Baina akordio batean bi aldeek irabazi behar dutenez, gure merchandaising-ean udaletxearen logoa jarriko dugu. Lokala ez dugu ordainduko, baina bertako gastuak bai, esaterako, ura eta argia.

Esan bezala, gure enpresaren aurkezpena **herriko plazan** egingo dugu. Hasiera batean, enpresa batekin hitz egin eta gero ez genuen ezer akordatzea lortu, horregatik, udaletxearekin hitz egin eta gero, herriko plazan egitea erabaki dugu. Eguraldi txarra eginez gero Aljiben (udaletxearen leku itxi batean), Amasa-Villabonan egingo dugu. Honela bertako eta inguruan bizi diren herritarrek gure enpresarekin lehen kontaktua izango dute.



Bigarrenik, ekintza bereziak egiteko garaian, inguruko enpresekin kontaktatuko dugu, honela, ekintza finantzatzeko digute, trukean enpresaren logotipoa jarriko dugu gure kamiseta eta dena delakoetan. Enpresak edo elkarteak era guztietakoak izan daitezke, Behar Zana kirol elkarte edo Urpa enpresa esaterako. Behar Zana kirol elkarte bat denez, kirolarekin zerikusia daukaten ekintzetan lagunduko liguke eta Urpak bidaiak egiteko erraztasuna emango liguke.

Azkenik, udalekuekin antzeko gauza egingo dugu, hau da, udalekuetako kamisetetan logotipo desberdinak azalduko dira eta trukean enpresa desberdin horiek, guri udalekuak finantzatzeko lagunduko digute. Aiztondo bailarako udaletxe guztiek eta Sarasola sagardotegiak adibidez jarriko genituzke kamisetetan.

Aurreko guztia laburbilduz, negozioazio desberdinak gauzatzen saiatu gara; batzuk lortu ditugu, beste batzuk, aldiz, ez, **Lumina** enpresarekin esaterako. Baina irabazten atera gara egindako negozioazio guztiekin, udaletxeak eskaintza ugari eskaini dizkigu; eskaerak jaso dituzte eta azkenean lortutako erantzuna bi aldeentzat onuragarria izan da.

Enpresa desberdinekin egindako akordioak, ere aukera handia eman digute gure enpresa hazteko.

Horrenbestez, akordio guztiei esker, gure ekintzak eta udalekuak modu iraunkor batean antolatu ahal izango ditugu, herritarren parte-hartzea sustatuz eta gure proiektuaren oinarri diren balioak, hala nola, komunitatearen indarra bultzatuz.